

573/2014 Foru Agindua, urriaren 28koa, Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien errolda arautzen duena.

OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Araua osoa eta eguneratua jasotzen da bertan.

ZIOEN AZALPENA

Urriaren 14ko 32/2014 Foru Dekretuak aldaketak sartu ditu Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duen irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuan. Zehazki, ekarri duen aldaketa izan da identitatea eta ordezkaritza frogatzeari buruzko 40/2006 Foru Dekretua indargabetu duela eta gai horren erregulazioa 23/2010 Foru Dekretuan utzi duela orain jasota. Aldaketa horien ondorioz, beharrezkoa gertatzen da legezko ordezkartzaren araudia eskema normatibo berrira egokitzea eta bertan zenbait aldaketa sartzea. Nolanahi ere, legezko ordezkarien errolda arautzen duen irailaren 15eko 822/2006 Foru Aginduan oinarrituta altan emandako legezko ordezkartzek indarrean jarraitzen dute.

Legezko ordezkartzak legean definituta daude, hala pertsona juridikoei dagokienez nola jarduteko gaitasunik ez duten pertsona fisikoei dagokienez. Normalean, pertsona juridikoak behartuta daude erregistro publiko jakin batzuetan inskribatzera legezko ordezkartzak. Herri administrazioen arteko elkarreragingarritasuna oraindik garatu gabe dagoen honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki du errolda batean jasotzea erregistro publikoetan legezko ordezkartzari buruz sakabanatuta dagoen eta Foru Aldundiaren jarduketa esparruari eragiten dion informazioa.

Legezko ordezkarien errolda bat izateak bi gauza ahalbidetzen ditu: alde batetik, ordezkartzaren frogagiriak ez eskatzea pertsona juridikoak edo jarduteko gaitasunik gabeko pertsona fisikoak administrazio honen aurrean jardun nahi duen bakoitzean, eta, bestetik, administrazio elektronikoa bultzatzea, izan ere, sinadura elektronikoa pertsonala erabiltzen duenean, legezko ordezkariak bitarteko elektronikoen bidez jardun dezake ordezkatuaren izenean.

Legezko ordezkartzaren tramitazioa errazteko, aurreikusi da Foru Aldundiak ofizios jardutea bi pertsonaren arteko legezko ordezkartza dokumentu bidez egiaztatuta dagoenean.

Horrelakoetan, Foru Aldundiak berak inskribatuko du harreman hori legezko ordezkarien erroldan, eta interesdunei horren berri emango die.

Alta emateko prozedurari dagokionez, foru agindu honek berrikuntza nagusi hauek dakartza:

- Prozedura ordezkariak, ordezkatuak edo bietako edozeinen borondatezko ordezkariak abiatu dezake.
- Dokumentazioa bide elektronikoz aurkeztuko da, Sinadura Elektroniko Aurreratua (SEA) erabilia beti.
- Ordezkatuaren borondatea ez da balioztatu behar, harremana beti egongo baita jasota agiri ofizial batean.

Behin dokumentazioa egiaztatuta, eta gabeziak jakinarazi eta gero, aurre-inskripzioari alta emango zaio edo errefusatu egingo da. Interesdunak beti izango du irekita aurre-inskripzioa berriro eskatzeko prozedura.

Horiek horrela, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua. Xedea.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Legezko Ordezkarien Errolda arautzea eta bertan inskribatzeko prozedura ezartzea da foru agindu honen xedea.

2. artikulua. Helburua eta ondorioak.

1. Legezko ordezkarien erroldan inskribatzearen helburua da ordezkariak egiaztatzea Gipuzkoako foru eta udal administrazioen aurrean hirugarren pertsonen izenean aurrez aurre, baliabide elektronikoz edo telefonoz egin daitezkeen jarduketetan, 5. artikuluan ezarritakoa eragotzi gabe.¹

¹ 2. artikuluko 1. atala aldatu egin du martxoaren 24ko 162/2017 Foru Aginduak, Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien errolda arautzen duen urriaren 28ko 573/2014 Foru Agindua aldatzen duena (2017/03/29ko GAO).

2. Erroldan inskribatzea borondatezkoa da. Dena den, Foru Aldundiak ofizioz inskriba dezake legezko ordezkari bat, hura frogatzen duen dokumentazioa edozein bitarteko erabilita jasotzen duenean.

3. Foru agindu honen 8. artikuluan aurreikusitakoa eragotzi gabe, ulertuko da balio osoz inskribatutako ordezkari indarrean dagoela hura aldatu arte edo erroldan baja eman arte. Hortaz, ordezkari horretaz baliatuta egindako jarduketak guztiak baliozkoak eta eraginkorrak izango dira.

4. Guztiarekin ere, erroldan inskribatutako ordezkariaren eraginkortasunean eta balioan eragin dezakeen gorabeherarik gertatuz gero, ordezkari zein ordezkari dagokio Ogasun eta Finantza Departamentua jakinaren gainean jartzea.

3. artikulua. Inskriba daitezkeen legezko ordezkari motak eta indarraldia.

1. Lau eratako ordezkariak jaso daitezke legezko ordezkarien erroldan: legezko ordezkari bakarrak, solidarioak, kolegiatuak eta mankomunatuak.

- Ordezkari bakarra denean, ordezkariaren izenean jardungo duenaren izena adieraziko da.
- Ordezkari solidarioaren kasuan, pertsona juridikoaren administratzaile solidarioak adina ordezkari eman daitezke.
- Ordezkari kolegiatuan, bereizten dira kontseilari delegatua izendatua duten kide anitzeko organoak eta horrelakorik izendatu ez dutenak.
- Kontseilari delegatua izendatuta badago, pertsona horrek jardun dezake entitatearen legezko ordezkari gisa.
- Kontseilari delegaturik ez badago, ordezkari emateko ereduaren presidentearen edo idazkariaren izena adieraziko da. Dena den, pertsona juridiko horrek ezin du jardun modu elektronikoz legezko ordezkari bidez.
- Ordezkari mankomunatuan, ordezkari emateko agirian administratzaile mankomunatuaren edozeinen izena jasoko da. Dena den, pertsona juridiko horrek ezin du jardun modu elektronikoz legezko ordezkari bidez.

2. Ordezkaritzaren indarraldia entitatearen estatutuetan ezarriko da. Hala ere, elkarteetan eta kapital-sozietate, lan-sozietate eta sozietate kooperatibetan ordezkaritzak epe jakin bat duenean, haren indarraldiak erregela hauei jarraituko die errolda honen ondorioetarako:

- **Elkartekak.** Entitatearen estatutuetan ezarritakoarengatik dagoeneko iraungi bada elkarteko presidente gisa ageri den pertsona karguan egoteko epea, pertsona horrek emandako ordezkaritzak onartuko dira baldin eta elkartearen erregistroak luzatutako ziurtagiria aurkezten bada eta bertan bera ageri bada inskribatutako azken kargu gisa.
- **Kapital-sozietateak, lan-sozietateak eta sozietate kooperatiboak:** legezko ordezkaritzak iraungitzat joko dira karguak epemugara iritsi eta hiru hilabetera, kontrakoa frogatu ezean.

4. artikulua. Legezko ordezkaritza inskribatzeko prozedura.

1. Legezko ordezkaritzari alta emateko eskaera. Ordezkariak, ordezkatuak edo bietako edozeinen borondatezko ordezkaritza tributario zein korporatiboak eskatu dezake aurre-inskripzioa. Eskatzaileak, behin sinadura elektronikoki aurreratua identifikatua, ordezkaritza eta ordezkatuaren datuak grabatu behar ditu aplikazio informatikoan. Aurre-inskripzioa egiteak dokumentazioa aurkeztu beharra dakar.

2. Dokumentazioaren aurkezpena. Dokumentazioa eskaneatu egin behar da, eta aplikazio informatikoaren bitartez aurkeztu sinadura elektronikoki aurreratua erabiliz. Dokumentazioa aurkeztearekin batera, bidalitako dokumentazioaren indarraldiari buruzko erantzukizunpeko aitortpen bat sinatu behar da. Agiri hauek onartzen dira:

- Erregistro Publikoan inskribatutako agiria.
- Ordezkaritzari buruzko agiri judiziala.
- Familia liburua.

3. Aurre-inskripzioari alta ematea edo errefusatzeta. Behin dokumentazioa berrikusita, prozedura amaituko da aurre-inskripzioaren alta edo errefusa jakinarazten denean.

a) Alta egingo da baldintza hauek betetzen direnean:

- Aurre-inskripzioa behar bezala bete denean.

- Aurkeztutako dokumentua berrikusitakoan, Ogasun eta Finantza Departamentuak balioztatzen duenean.

b) Aurreko apartatuko baldintzak betetzen ez direnean, aurre-inskripzioa errefusatu egingo da. Errefusaren arrazoia posta elektronikoz jakinaraziko zaio aurre-inskripzioa egin duen pertsonari, eta honek beti abiatu ahal izango du berriro ordezkartzari alta emateko prozedura.

5. artikulua. Legezko ordezkartzaren berezitasunak Ogasun eta Finantza Departamentuarekiko harremanetan.²

1. Arlo tributarioko jarduketan Ogasun eta Finantza Departamentuak erabiliko dituen harremanetarako datuak ez dira izango legezko ordezkartzaren altan emandakoak, bere datu base tributarioetan ageri direnak baizik.

2. Harremanean esku hartzen duten pertsonetako bat ez bada agertzen departamentuaren datu base tributarioetan, legezko ordezkartza ezingo da erabili Ogasun eta Finantza Departamentuarekiko zerga-harremanetan.

6. artikulua. Ofiziozko altak.

1. Legezko ordezkartzari alta eman dakioke ofizioz, baldin eta ordezkartza frogatzen duen dokumentazioa publikoa bada erregistro publiko batean inskribatuta agertzeagatik, eta lehendik Gipuzkoako Foru Aldundiko edozein departamentutan aurkeztu bada.

2. Interesdunari ofizioz egindako altaren berri emango zaio beti.

7. artikulua. Inskribatutako ordezkartza aldatzea eta baja ematea.

1. Inskribatutako ordezkartzan zeinahi aldaketa egiteko, foru agindu honetan altak emateko aurreikusitako prozedurari jarraitu behar zaio.

² 5. artikulua aldatu egin du martxoaren 24ko 162/2017 Foru Aginduak, Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien errolda arautzen duen urriaren 28ko 573/2014 Foru Agindua aldatzen duena (2017/03/29ko GAO).

2. Epea igarotzeagatik, interesdunak eskatzeagatik edo Ogasun eta Finantza Departamentuak ofizioz jarduteagatik eman dakioko baja legezko ordezkariari.

- **Baja ematea epea igarotzeagatik.** Legezko ordezkaria izendatu duen agiriak epe jakin bat ezarrita duenean, epe hori amaitzen den egunean emango zaio baja ordezkariari. Baja eguna zehazteko, foru agindu honen 3.2 artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.
- **Baja ematea interesdunak eskatzeagatik.** Foru agindu honen 4.1 artikuluan aipatzen diren pertsonak baja eskatu dezakete, betiere baldin eta ordezkariaren amaiera frogatzen duen eskritura edo agiri publikoa eransten badute. Presentzialki zein bide telematikoz eskatu daiteke baja.
- **Ofiziozko baja.** Legezko ordezkariari baja eman dakioko ofizioz, ordezkariari hori frogatzen duen dokumentazioa lehendik aurkeztu bada Gipuzkoako Foru Aldundiko edozein departamentutan.

3. Legezko ordezkarien erroldan izandako bajak interesdunei jakinaraziko zaizkie.

8. artikulua. Ogasun eta Finantza Departamentuaren kudeaketa ahalmenak.

1. Departamentuak beretzat gordetzen du erregistratutako legezko ordezkariak balio gabetzeko eskubidea, inskripzioak akatsak ageri dituztenean, frogagiriaren indarraldiaz edo balioaz arrazoizko zalantzak daudenean, edo inskribatutako ordezkariaren eraginkortasunik eza dakarten bestelako arrazoiak gertatzen direnean. Ebazpen arrazoitua beharko da inskripzioa balio gabetzeko, eta interesdunari jakinaraziko zaio.

2. Orobat, egindako inskripzioak indarrean eta eguneratuta daudela ziurtatzeko, departamentuaren eskubidea da egoki irizten duen maiztasunarekin exijitzea bidezko frogagiriak berriro aurkeztu daitezela, eta egindako errekerimenduari jaramonik egiten ez zaionean baja emango die dagozkien ordezkariari.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA. Inskribatutako ordezkariaren indarraldia.³

³ Lehen xedapen gehigarriari zenbakia erantzi dio martxoaren 24ko 162/2017 Foru Aginduak, Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien errolda arautzen duen urriaren 28ko 573/2014 Foru Agindua aldatzen duena (2017/03/29ko GAO).

Indarrean jarraitzen dute legezko ordezkarien errolda arautzen duen irailaren 15eko 822/2006 Foru Aginduan oinarrituta altan emandako legezko ordezkarietzek.

BIGARRREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Gipuzkoako udalen atzipena Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan.⁴

Gipuzkoako udalek aukera izango dute Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan atzitzeko, betiere aurrez Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Gipuzkoako lurralde historikoko udalek informazioa elkarri lagatzeko lankidetzaz hitzarmenaren D-7 eranskina «Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen kontsulta» izeneko eranskina sinatzen badute, eta eranskin horretan jasotzen moduan.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.

Indarrik gabe geratzen da irailaren 15eko 822/2006 Foru Agindua, Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien errolda arautzen duena.

AMAIERAKO XEDAPENA.

Foru agindu hau 2014ko azaroaren 11n jarriko da indarrean.

⁴ Bigarren xedapen gehigarria erantzi du martxoaren 24ko 162/2017 Foru Aginduak, Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien errolda arautzen duen urriaren 28ko 573/2014 Foru Agindua aldatzen duena (2017/03/29ko GAO).